



Astigarragako Udala

Idazkaritza – Secretaría
idazkaritza@astigarraga.eus

EZ OHIKO UDAL OSOKO BILKURAREN AKTA

Bilera-zenbakia: 2023IPLE0007

Eguna: 2023-05-25

Ordua: 19:00 – 19:25

Tokia: areto nagusian

Bertaratuak

- Xabier Urdangarin Lasa Astigarragako EH Bildu
- Aintzane Barandiaran Ezponda..... Astigarragako EH Bildu
- Roxali Fernandez Rodriguez Astigarragako EH Bildu
- Esti Neira Martinez Astigarragako EH Bildu
- Aitor Güemes Oyarbide Astigarragako EH Bildu
- Ione Olatziregi Mendiorotz Astigarragako EH Bildu
- Juan Martín Arregui Sagües..... Astigarragako EAJ-PNV
- Urkiri Salaberria Gracia Astigarragako EAJ-PNV
- Iñigo Touzani Velasco..... Astigarragako EAJ-PNV
- Mikel Durán Gonzalo..... Udal-talde Sozialista

Bertaratu ez direnak

- Andoni Gartzia Arruabarrena..... Astigarragako EH Bildu
- Nerea Zusberro Alberro..... Astigarragako EAJ-PNV
- Olaia Pastoriza Santos..... Astigarragako EAJ-PNV

Idazkaria

- Kontxi Urdampilleta Santamaria

Bertaratutako udal teknikariak

- Amaia Bengoetxea Arrozpide, ordezko udal kontu-hartzailea

Aztergaiak

2023ko maiatzaren 16ko akta onartzea.	1	Aprobación del acta del 16 de mayo de 2023
Kreditu aldaketa, kreditu transferentzia modalitatean: KALD-0009 espedientea.	2	Modificación de crédito en la modalidad de transferencia de créditos: expediente KALD-0009.
Kreditu aldaketa, kreditu transferentzia modalitatean: KALD-0010 espedientea.	3	Modificación de crédito en la modalidad de transferencia de créditos: expediente KALD-0010.
Donostia ibilbidea berrurbanizatzeko obren kontratazio-espedientearen aldaketa.	4	Modificación del expediente de contratación de las obras de reurbanización de Donostia ibilbidea.
Informazio, galdera eta eskariak.	5	Información, ruegos y preguntas.



Astigarragako Udala

Idazkaritza – Secretaría
idazkaritza@astigarraga.eus

Esan-eginak eta erabakiak

1.-2023ko maiatzaren 16ko akta onartzea.

Ione Olatziregi zinegotzia abstenitu egin da (bileran parte hartu ez zuelako) eta gainerakoek alde bozkatu dute. Beraz, akta onartu da.

1.-Aprobación del acta del 16 de mayo de 2023

Lla concejala Ione Olatziregi se ha abstenido, dado que no participó en la misma, y el resto votan a favor. Por lo tanto, se aprueba el acta.

2.-Kreditu aldaketa, kreditu transferentzia modalitatean: KALD-0009 espedientea.

Alkateak kreditu aldaketa izapidetzearen arrazoiak azaldu ondoren, Ogasun eta Ondareko batzordeko irizpen hau aurkeztu du onartua izan dadin:

Lehenengoa.- Onartzea Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espedientea, kreditu transferentzien modalitatekoa, proposamenean ageri den partidakako xehetasunarekin, kapitulukako laburpen honen arabera

2.-Modificación de crédito en la modalidad de transferencia de créditos: expediente KALD-0009.

El Alcalde, tras exponer los motivos por los que se tramita la modificación de créditos, presenta para su aprobación el siguiente dictamen de la Comisión de Hacienda y Patrimonio:

Primero.- Aprobar el expediente de modificación de créditos del Presupuesto de este Ayuntamiento, en la modalidad de transferencias de crédito, con el detalle por partidas que figura en la propuesta, conforme al siguiente resumen por capítulos:

Kreditua transferituko duten gastuak (bajak)

Kapitulua	Izena	Egungo kredituak	Murrizketa	Amaierako kreditua
4	TRANSFERENTIZA ARRUNTA	18.000,00	8.000,00	10.000,00
	GUZTIRA	18.000,00	8.000,00	10.000,00

Kreditua jasoko duten gastuak (altak)

Kapitulua	Izena	Egungo kredituak	Gehikuntza	Amaierako kreditua
2	GASTUAK ONDASUN ARRUNTETA ZERBITZUETAN	4.000,00	8.000,00	12.000,00

Bigarrena.- Egintza hau bestelako tramiterik gabe irmo eta exekutiboa denez gero, bidezkoa da Kontuhartzaitza Zerbitzuak berehala kontabilizatzea onartutako kreditu aldaketa

Segundo.- Dado que este acto es firme y ejecutivo sin más trámite, procede la contabilización inmediata por el Servicio de Intervención de la modificación de crédito aprobada.

Jarraian bozkatzera ekin zaio, eta irizpena **aho batez onartu** da.

A continuación se procede a votar y se **aprueba** el dictamen por **unanimidad**

3.-Kreditu aldaketa, kreditu transferentzia modalitatean: KALD-0010 espedientea.

Alkateak kreditu aldaketa izapidetzearen arrazoiak azaldu ondoren, Ogasun eta Ondareko batzordeko

3.-Modificación de crédito en la modalidad de transferencia de créditos: expediente KALD-0010.

El Alcalde, tras exponer los motivos por los que se tramita la modificación de créditos, presenta para



Astigarragako Udala

Idazkaritza – Secretaría
idazkaritza@astigarraga.eus

irizpen hau aurkeztu du onartua izan dadin:

su aprobación el siguiente dictamen de la Comisión de Hacienda y Patrimonio:

Lehenengoa.- Onartzea Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espediente, kreditu gaikuntzaren modalitatekoa, proposamenean ageri den partidakako xehetasunarekin, kapitulukako laburpen honen arabera:

Primero.- Aprobar el expediente de modificación de créditos del Presupuesto de este Ayuntamiento, en la modalidad de créditos adicionales, con el detalle por partidas que figura en la propuesta, de acuerdo con el siguiente resumen por capítulos:

Kreditua transferituko duten gastuak (bajak)

Kap.	Izena	Egungo kredituak	Murrizketa	Amaierako kreditua
2	GASTUAK ONDASUN ARRUNT ETA ZERBITZUETAN	241.000,00	79.000,00	162.000,00
4	TRANSFERENTZIA ARRUNTAK	296.500,00	7.000,00	289.500,00
GUZTIRA		537.500,00	86.000,00	451.500,00

Kreditua jasoko duten gastuak (altak)

Kap.	Izena	Egungo kredituak	Gehikuntza	Amaierako kreditua
6	INBERTSIO ERREALAK	570.000,00	86.000,00	656.000,00
GUZTIRA		570.000,00	86.000,00	656.000,00

Bigarrena.- Egintza hau bestelako tramiterik gabe irmo eta exekutiboa denez gero, bidezkoa da Kontuhartzaitza Zerbitzuak berehala kontabilizatzea onartutako kreditu aldaketa

Segundo.- Dado que este acto es firme y ejecutivo sin más trámite, procede la contabilización inmediata por el Servicio de Intervención de la modificación de crédito aprobada.

Jarraian bozkatzera ekin zaio, eta irizpena **aho batez onartu** da.

A continuación se procede a votar y se **aprueba** el dictamen por **unanimidad**

4.-Donostia ibilbidea berrurbanizatzeko obren kontratazio-espedientearen aldaketa.

4-Modificación del expediente de contratación de las obras de reurbanización de Donostia ibilbidea.

Alkateak Ogasun eta Ondareko batzordeko irizpen hau aurkeztu du onartua izan dadin:

El Alcalde presenta para su aprobación el siguiente dictamen de la Comisión de Hacienda y Patrimonio:

Lehena.- Donostia Ibilbidearen zati bat urbanizatzeko obrak egiteko, Astigarraga Hernani bizikletentzako eta oinezkoentzako ibilbidearen zati bat (3. bidea: Donostia-Beasain) egitea barne duena, obra-kontratuaren kontratu aldaketa espedienteari hasiera ematea, jarraian adierazitako aldaketak eta/edo obra-gehiak egiteko:

Primero.- Acordar el inicio del expediente de modificación del contrato de obra para la ejecución de las obras de urbanización de parte de Donostia ibilbidea, que incluye la construcción de un tramo del itinerario ciclista y peatonal Astigarraga-Hernani (Ruta 3: Donostia-Beasain), consistente en la realización de las siguientes modificaciones y/o obras adicionales:



Astigarragako Udala

Idazkaritza – Secretaría
idazkaritza@astigarraga.eus

- *Hornidurako hormigoi armatuzko kutxeta egitea (PC1).*
- *Industrialdearen sarreran dauden putzu, kutxatila eta zerbitzu-lerroen hormigoia indartzea (PC2).*
- *Faseetako egokitzapen-lanak egitea, erabiltzaileei ahalik eta gutxien eragiteko (PC3).*
- *20-60 KP eremuko horma erraustea eta ondoren hormigoizko inportatua handitzea (PC4).*
- *Hormigoizko eskaileren ordeztu granitozko akaberako eskailera prefabrikatuak jartzea (PC5).*
- *Euri-uren kolektorea berrikustea, telebista-kamerarekin egindako ikuskapenaren bidez (PC6).*
- *Proiektuan aurreikusitako altzairuzko baranden ordeztu, altzairu galvanizatuko eta altzairu herdoilgaitzeko barandak jartzea (PC7)*

Bigarrena.- Kontratu-aldaketa honek dakarren gastuari aurre egiteko, kontratuaren zenbatekoa 69.748,11 eurotan (BEZ aparte) handitzea.

Hirugarrena.- Akordioaren berri ematea SASOI ERAIKUNTZAK SL enpresari, obra-zuzendaritzari, kontratu arduradunari eta udaleko kontuhartzailetzari.

Jarraian bozkatzera ekin zaio, eta irizpena **ahobatez onartu** da.

- *Ejecución de arqueta de hormigón armado de abastecimiento (PC1).*
- *Refuerzo con hormigón de pozos, arquetas y líneas de servicio existentes en la entrada del polígono (PC2).*
- *Trabajos de adecuación durante las fases para minimizar la afección a las personas usuarias (PC3).*
- *Demolición de muro zona PK 20-60 y posterior recrecido de importa de hormigón (PC4).*
- *Sustitución de escaleras de hormigón por peldaños prefabricados con acabado de granito (PC5).*
- *Revisión del colector de pluviales mediante inspección con cámara TV (PC6).*
- *Sustitución de las barandillas de acero previstas en el proyecto, por otras combinadas en acero galvanizado e inoxidable (PC7).*

Segundo.- Incrementar el importe del contrato en 69.748,11 euros (IVA excluido), para hacer frente al gasto derivado de la presente modificación del contrato.

Tercero.- Dar traslado del acuerdo a la empresa SASOI ERAIKUNTZAK SL..., a la dirección de obra, a la responsable del contrato y a la intervención municipal.

A continuación se procede a votar y se **aprueba** el dictamen por **unanimidad**

5- Informazio, galdera eta eskariak.

Roxali zinegotziak, EAJ-PNVko kideei zuzenduta, adierazi die aurreko saioan etsipenetik hitz egin ziela, gaur, berriz, hasarretik. Leporatu die hauteskunde-kanpainan gezurretan ibiltzea, bere hitzetan ez baita egia gobernu taldeak 4 urte hauetan lo egon izana eta ezer egin ez izana. Aitortu du egia dela udal altxorrek diruz beteta utzi zituztela, eta legegaldi honetan egindako hainbat gauza aurretik zetozenak zirela, baina beste batzuk berriak zirela. Jarraian, azaldu du hezkuntza arloan legegaldi hasierako egoera eta azken 4 urteetan emandako aurrerapasoak, eta adierazi du udalak egin zezakeen guztia egin duela DBH eraikitze edota herri eskola handitzeko, eta egin ez bada izan dela Eusko Jaurlaritzak egin beharreko egin ez dituelako. Bukatzeko aurpegiatu die batzorde askotara bertaratu ez izana eta aztertutako gaien arekiko interesa ez eduki izana.

5.-Información, ruegos y preguntas.

La concejala Roxali, se dirige a los miembros de EAJ-PNV, y les señala que si en la sesión anterior les habló desde la decepción, en esta lo hace desde el enfado. Les acusa de mentir en la campaña electoral, porque dice no ser cierto que el equipo de gobierno haya estado dormido estos 4 años y no haya hecho nada. Reconoce que es cierto que dejaron las arcas municipales llenas de dinero y que algunas cosas hechas en esta legislatura venían de antes, pero señala que otras son nuevas. A continuación, explica la situación de inicio de legislatura en el ámbito educativo y los avances realizados en los últimos 4 años, y señala que el Ayuntamiento ha hecho todo lo que está en sus manos para construir la ESO o ampliar la ikastola, y que si no se ha terminado ha sido porque el Gobierno Vasco no ha hecho su parte. Para terminar les recrimina no haber acudido a muchas comisiones y que no interesarse en los



Astigarragako Udala

Idazkaritza – Secretaría
idazkaritza@astigarraga.eus

Urkiri zinegotziak hartu du hitza eta adierazi ondoren esaten diren gauza asko ez direla aktetan jasotzen, bere harridura adierazi du osoko bilkura batean oposizioari kontuak hartzeagatik, bere hitzetan lehendabizikoz gertatzen den zerbait, eta gaineratu du osoko bilkura ez dela sentipenez hitz egiteko foro bat.

Roxali zinegotziak egindako adierazpenei dagokionez, berriz, Urkiri zinegotziak adierazi du 2019an gobernu taldeak adierazi zuela DBH gauzatuko zutela, baina lau urte beranduago egin gabe dagoela, gaineratu du karkoa "gauzatu" hitzaren esanetan dagoela eta aurpegiratu dio beti errua beste botatzea.

"Gauzatzeko" gisa ulertu behar denaren eta DBHren ekipamenduari dagokionez alkateak azaldu du, horrelako ekipamendu bat egiteak urrats asko dituela, batzuk udalak egin beharrekoak eta besteak Jaurilaritzak egin beharrekoak, eta udalak egin beharreko guztiak legealdi honetan egin direla.

Urkiri zinegotziak aurreko legealdian ere egin zirela adierazi du, baina beste eremu batean jartzeko, jaurilaritzak horrela eskatu zuelako. Horren harira, egindako horiek alperrikakotzat hartu ditu alkateak, adierazi du ez zirela eraginkorrak, izan ere EAJren proposamena Ur Agentziaren eta Lurralde Antolamenduaren kontrako txostena zuelako. Baina Urkiriarentzat aurreproiektuak ez direla sekula alperrikan egiten diren lanak.

Aintzane zinegotziak ere hitza hartu eta adierazi du berek ere antzeman duela inplikazio eza, egia dela gobernu taldearen proposamen asko aho batez onartu direla, baina ez direla proposamenik egon. Bukatzeko, adierazi du herriko elkarte eta eragileek altxorra direla, eta horiek zaindu egin behar direla.

Alkateak bilkura amaitutzat eman du, eta eztabaidatua eta erabakitakoa jasota gera dadin nik, Idazkariak, honako agiria egin dut.

Astigarragan, 2023ko maiatzaren 25ean

Kontxi Urdampilleta Santamaria
Ordezko udal-idazkaria

temas tratados.

Toma la palabra la concejala Urkiri para manifestar que muchas de las cosas que se dicen después no se recogen en las actas, y muestra su sorpresa porque en un pleno se le pidan cuentas a la oposición, algo que –según ella– ocurre por primera vez, y añade que el Pleno no es un foro para hablar de sentimientos.

En cuanto a las declaraciones realizadas por Roxali, Urkiri ha señalado que en 2019 el equipo de gobierno dijo que se iba a llevar a cabo la ESO, pero que 4 años más tarde sigue sin construirse, y añade que la cuestión está en el significado de la palabra "ejecutar" y le ha reprochado que siempre echen la culpa a los demás.

Respecto a lo que hay que entender por "ejecución" y al equipamiento de la ESO, el alcalde ha explicado que hacer un equipamiento de estas características tiene muchos pasos, unos a realizar por el ayuntamiento y otros por el Gobierno Vasco, y que en la legislatura se han hecho todos los que correspondían al Ayuntamiento.

Urkiri señala que en la legislatura anterior también se trabajó al respecto, pero para construirlo –a petición del gobierno vasco– en otra zona. A ese respecto el alcalde califica de inútiles esas actuaciones, dado que la propuesta contaba con informe desfavorable de URA y de Ordenación del Territorio. Pero para Urkiri los anteproyectos nunca son trabajo en vano.

La concejala Aintzane también toma la palabra y señala que ella también ha detectado falta de implicación, que es cierto que muchas de las propuestas del equipo de gobierno han sido aprobadas por unanimidad, pero que no ha habido propuestas. Concluye señalando que las asociaciones del pueblo son un tesoro que hay que cuidar.